



VIVRE ET SE LOGER AU PAYS ! ESPEKULAZIOARI EZ ! C'est sous ce slogan que nous nous sommes réunis aujourd'hui. Nous sommes des milliers, nous sommes plus de 8000 à avoir manifesté pour le droit au logement aujourd'hui ! C'est toute la diversité du Pays Basque Nord qui est descendue dans la rue.

La crise immobilière touche tous les pans de la société du Pays Basque, en particulier les plus démunis et les plus modestes mais aussi les classes moyennes. Celles et ceux qui y sont nés, qui sont venus y habiter, qui y étudient, qui y travaillent, tous y sont confrontés. Face à un système complexe et organisé, un marché foncier et immobilier débridé, des discours dépassés sur la fatalité de l'offre et la demande la nécessité d'un encadrement du marché devient de plus en plus fort, et cela ne peut passer que par une forte mobilisation de la population et la mise en place d'une politique du logement ambitieuse et des mesures qui nécessitent un courage politique fort. Le problème du logement est vaste, il questionne tout un chacun. Car effectivement tout le monde est touché ou peut être touché. Mais si la situation nous échappe, il est hors de question de céder au fatalisme.

Les solutions existent

Des solutions locales, qui dépendent de la volonté ou du courage politique des élus locaux. Dans les mairies, à l'agglomération Pays Basque il convient de prendre des mesures d'urgence qui assurent l'accès à un logement digne à l'ensemble de la population. Des solutions qui pour certaines passeront aussi par des changements législatifs nécessaires que nous devons obtenir à force de mobilisations.

La régulation du marché immobilier passera par des décisions politiques qui permettront de garder la maîtrise publique du foncier mais aussi avec des mesures comme la compensation qui permettra de lutter contre les locations meublées de tourisme de type AirBnB. Ce genre de décisions ne dépendent que de nos institutions locales. Les pouvoirs publics doivent intervenir beaucoup plus fortement sur le marché en constituant notamment des réserves foncières sur le long terme et en sanctuarisant le foncier agricole.

Parce que nous considérons que le droit d'avoir un logement doit passer avant celui d'en avoir deux, nous devons lutter contre les résidences secondaires qui sont autant de toits confisqués à la population qui souhaite vivre ici. Avoir un salaire ou un CDI n'assure pas de trouver un logement en Pays basque. Les loyers et le prix du foncier ne sont pas en rapport avec les salaires pratiqués sur le territoire.

Toute une partie de la population qui se pensait protégée jusqu'à présent se sent désormais menacée. Et c'est sans parler des accidents de la vie, du chômage, des séparations ou des précaires, des étudiants, des exclus et des sans statuts. Sans mesures fortes, une grande partie de la population pourrait se retrouver sans toit, ou logée dans des conditions indignes.

Nous avons besoin de logement d'urgence, de logement d'insertion ou encore de logement adapté. Nous devons limiter les constructions pour préserver le foncier, ne pas artificialiser les sols et protéger les ressources. Produire du logement pour toutes et tous ne passe pas forcément par des constructions à outrance. Cela demande systématiquement de se questionner sur le fait pour quoi et pour qui on produit ?

L'urgence est là ! Les solutions sont entre nos mains !

Nous sommes aujourd'hui des milliers. Mais ce n'est pas un aboutissement, ce n'est que le début. Pour influencer sur les politiques de l'habitat et d'urbanisme au niveau local mais aussi pour arracher les changements législatifs nécessaires, la mobilisation doit perdurer, le travail en commun doit se structurer.

Les 32 organisations syndicales, politiques, associatives à l'origine de la manifestation d'aujourd'hui s'engagent à poursuivre le travail collectif entamé. Nous entamerons donc dès les prochains jours la structuration d'un espace de travail en commun, dans le respect de chaque organisation et ouvert aux citoyennes et citoyens qui souhaitent y participer.

Il n'y a que ce travail collectif, l'union et la collaboration qui permettront de faire face au marché libre et ses dérives. Pour que chacune et chacun ait droit de VIVRE ET SE LOGER AU PAYS

HERRIAN BIZI / NAHI DUGU !
ARRETONS / LA SPECULATION !



Lema honekilan bildu gira gaur milaka pertsona, etxebizitza eskubidearen alde egiteko: 8000 baino gehiago. Ipar Euskal Herria ordezkatzeko duen aniztasuna bildu da gaur Baionako karraketan.

Etxebizitzaren krisiak jendarte guzian hunkitzen du, batez ere behar handienetan direnak baina baita ere klase ertainak ere. Denek jasaiten dituzte krisi honen ondorioak ; hemen sortu direnek, hona bizitzera etorri direnek, hemen ikasten edota lan egiten dutenek.

Sistema konplexu eta antolatu huntan, lurraren eta etxebizitzaren merkatuak emendatuz doaz. Horrez gain, eskaintza eta eskaeraren arteko diskurtso eroek erakusten daukute merkatua kuadratu duten neurriak behar beharrezkoak direla. Eta nola lortuko dugu hori ? Mobilizazio herritar eta indartsu baten bidez eta ausardia politikoa eskatzen duen etxebizitza politika anbiziotsu bati esker.

Etxebizitzaren problematika zabala da eta denak galdezkatzen gaitu, denak hunkituak girelako edo hunkituak izan gaitezkelako. Egoerak ihes egiten badigu ere, ez da fatalismoan erori behar.

Aterabideak existitzen dira

Tokiko aterabideak, tokiko hautetsien borondatearen edo ausardi politikoaren arabera dira. Herriko etxeetan, Euskal Elkargoan, berehalako neurriak hartu behar dira, herritar guztiak etxebizitza duina ukan dezaten. Aterabide horietarik batzuk, lege aldaketari esker gauzatu daitezke eta hori mobilizaziorik esker lortuko dugu.

Etxeen merkatuaren erregulatzeko, lurzorua kontrolatzeko politika publikoak beharrezkoak dira. Beharrezkoak dira ere, konpentsazio gisako neurriak, AirBnB bezalako egiturek etxebizitzak turistendako alolatzeko oztopatzen dutenak. Horrelako aterabideak, tokiko instituzioen esku dira.

Botere publikoek askoz ere parte hartze handiagoa izan behar dute merkatuan, bereziki epe luzeko lur erreserbak eratuz eta laborantzako lurra bermatuz.

Etxebizitza bat izateko eskubideak, bi etxebizitza izatea baino lehentasun handiagoa du. Bigarren etxebizitzaren kontra borrokatzen segitu behar dugu. Etxebizitza horiek, bertan bizi nahi dutenei lapurtuak zaizkie.

Soldata edo lan-kontratu mugagabea izateak Ipar euskal Herrian etxebizitza aurkitzea ez du segurtatzen. Alokairuek eta lurren prezioek lurraldean atxemaiten diren soldatekin ez dute deus ikustekorik. Orain arte babestua zela uste zuen biztanleriaren zati oso bat mehatxatua sentitzen da. Eta hori, bizitzako istripuak, langabetuak, prekarioak, ikasleak, baztertuak eta estatusik gabekoak aipatu gabe. Neurri indartsurik gabe, biztanleriaren zati handi bat etxerik gabe edo gaizki aterbetua gelditi liteke.

Larrialdiko etxebizitzak, integrazioko etxebizitzak edota etxebizitza egokituak behar ditugu. Lurra zaintzeko, lurzoruak ez artifizializatzeko eta baliabideak babesteko eraikuntzak mugatu behar ditugu. Denentzako etxebizitza sortzeko ez da nola nahika eraiki behar. Horretarako, sistematikoki gure buruei galdezkatu behar diegu zertarako eta norentzako produzitzen dugun.

Larrialdia hor da eta aterabideak gure esku artean dira !

Gaur milaka gira hemen ! Hau ez da bukaera bat, hasiera bat baizik. Lekuko mailan etxebizitza eta hirigintza politketan eragiteko, baina baita beharrezkoak diren lege aldaketetan eragiteko ere, mobilizazioak segitu behar du, elkarlanak segitu behar du.

Manifestazio honen antolakuntzan izan giren 32 erakunde sindikalek, politikoez, elkarteek, hasitako lan kolektiboa segitzeko konpromisoa hartzen dugu. Beraz, ondoko egunetan hasiko gira elkarrekin lan egiteko gune bat antolatzen, egitura bakoitza errespetatuz eta parte hartu nahi duten herritar guzietatik irekiz.

Lan kolektiboa, batasuna eta lankidetzak behar ditugu, merkatu libreari eta haren ondorioei aurre egiteko. Bakoitzak bere herrian bizitzeko eskubidea ukan behar du.

Herrian bizi nahi dugu !